

**KONTZERTU KORALEN
ZIKLOAK
ANTOLATZEKO
LAGUNTZAK
OINARRIAK**

KONTZERTU KORALEN ZIKLOAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK Oinarriak

1. Deialdiaren helburu eta xedea

- 1.1. 2025. Urte honetan, kontzertu koraleen zikloak antolatu nahi dituzten abesbatzei laguntza ekonomikoak ematea da deialdi honen xedea.
- 1.2. Zikloak gutxienez hiru kontzertu koral izan beharko ditu, eta bertan antolatzailea ez den beste bi abesbatzek parte hartu beharko dute behintzat, azken hauetariko bat ere Gipuzkoako Abesbatzen Federazioan federatuta egon beharko duelarik (antolatzaileaz gain).
- 1.3. Zikloak bideragarritasun ekonomikoa izan behar du, eta aurkeztutako aurrekontua amaierako likidazioarekin antzekoa izan beharko da.

2. Onuradunak

- 2.1. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko kide izan eta hari dagozkion kuoten ordainketak eguneratuak dituzten abesbatza guztiak ahal izango dira laguntza ekonomiko hauen onuradun.

3. Baldintzak eta eskaerak

- 3.1. Laguntza eskatzen duen abesbatzak ekintzaren gutxi gora beherako datak eta abesbatza parte hartzaileen izenak azaldu beharko ditu (ekintza, data edo abesbatza parte-hartzaileen edonongo aldaketak federazioari jakin arazi beharko zaizkio).
- 3.2. Eskaerak aurkezteko epea: 2025eko urriaren 10ean amaituko da, eguerdiko 14:00tan.
- 3.3. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak positiboki baloratuko du abesbatza parte-hartzaileak zikloa antolatzen duen abesbatzaren herri desberdinekoak izatea.
- 3.4. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak positiboki baloratuko du derrigorrezkoak diren abesbatza federatuez gain, GAFen federatutako abesbatza gehiagok parte hartzen badute.
- 3.5. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak positiboki baloratuko du bai kontzertu zikloen urteetako esperientzia bai eta komunikabideetan izan duen oihartzuna, bildutako jendetza eta aurreko urteetan abestutako obrak (egonez gero).
- 3.6. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak ere positiboki baloratuko du federazio honek aurreko edozein urteetan Sorkuntza Koralerako laguntza jaso duten obrak errepertorioaren barne egotea (horrela izanik, esku-programetan azaldu beharko luke).
- 3.7. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak zikloaren originaltasuna eta interesa ere baloratuko ditu (programak, ekartzen diren koruak, etab.)



gipuzkoako
abiesbatzen
federazioa

4. Laguntzak eman eta justifikazioa

- 4.1. Aurrekontu guztiaren %70 baina gehiago ez da inoiz emango.
- 4.2. Federazioak laguntzaren %75 laguntzak erabakitzen diren unean ordainduko du eta gainontzeko %25 zikloa gauzatu dela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren.
- 4.3. Laguntza hauek, beste entitate publiko edo pribatuek ematen dituzten subentzio edo diru-laguntzekin bat datoz, beti ere jasotako diru-laguntza guztiak ez badu izandako gastu guztien kopurua gainditzen.
- 4.4. Diru laguntza jasotzen duten abesbatzek, federazioak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, gutxienez, justifikatu beharko dute, dagokion faktura edo banku-agirien bidez.

Era berean, diruz lagundutako jarduera osoaren diru-sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztu beharko dute, eta dokumentazio grafikoa (argazkiak, bideoak, eskuko programak, prentsa) ere gehitu, non federazioa babesle gisa agertzen den.
- 4.5. Federazioak diruz laguntzen dituen gastuak honako hauek dira: abesbatzen edo musikarien katxeta, instrumentuen alokairua, autobusez egindako desplazamenduak eta abesbatzentzako oparitxoak.
- 4.6. Onartutako baldintzak ez badira betetzen, laguntza jaso duen abesbatza diru-laguntza itzuli beharko du.

5. Oinarriak onartzea

- 5.1. Eskaera aurkezteak oinarri hauek bere osotasunean onartzen direla inplikatzeko du. Hauen edukari buruzko edozein zalantza interpretatzeko eskubidea beregain jasotzen du GAFek.